

## **DIRU SARREREN ITURRIAK**

Aplikazioa doainik izango da, baina deskarga bakoitzarengatik 0,70€ jasoko ditugu Play Storek emango baitigu dirua. Hala ere, play store aplikazioarekin kontaktuan jarriko gara prezioei buruz hitz egiteko. Gure diru-sarrera nagusiak harpidetzagatik bezeroek ordaintzen dutena %5arekin, publizitatea %5arekin (gure sare sozialetan beste enpresa batzuen publizitatea eskeiniko dugu baina beti ere gure enpresarekin erlazionaturik badago) eta aktiboen salmenta %90arekin dira. Bestalde, instagram sare sozialean jarraitzaile asko dituzten pertsonen ordaintzea erabaki dugu haiek gure aplikazioaren buruzko informazioa guztiarekin partekatzearen truke. Ekintza hau gauzatzearekin batera inbertsio kantitate bat galduko dugu baina diru hori ondoren berreskuratuko dugu jende askok gure aplikazioa deskargatuko baitu. Beraz, etekinak handiagoak izango dira galdutako diru hori baino. Bestalde, gure aplikazioan publizitatea jartzea erabaki dugu. Gure kasuan, panteneri egingo diogu publizitatea. Beraz, 3.000€ irabaziko ditugu hilabetero.

Diru sarrerak kalkulatzeko, salmenta prezioa X kantitatea egingo dugu. Ondorioz, lehen 6 hilabetetan irabazitakoa 10.500€ izango dira aplikazioarekin bakarrik, hau da, deskargengatik. Publizitatea gehituz, 28.000€ izango litzateke.